

"Familia giroan, dena da hobea"

Familia handitzea erabakitzen dugu. Ama edo aita izatea erabakitzen dugu. Rol berri bat barneratzen dugu, erantzukizun berri bat. Familia-dinamika, lehentasunak, antolakuntza, eginkizunak...aldatzen dira.

Alaba edota semeen hazkuntza eta hezkuntzan bi heldu inplikatzeko direnean, erantzukizunak partekatzen dira. Helduok, ama edo aita bezala dugun betebeharrak edo funtzioak konfiantza izan behar dugu, konpetente sentitu behar dugu. Kontziente izan behar dugu, gure alaba edota semeen garapenean eragiten dugula eta eragingo dugula aurrerantzean ere. Erreferente gaituzte eta beraien bizipenen parte gara.

Nolanahi ere, elkarrekiko errespetua gailendu behar da. Beste pertsonak ere (bi heldu bizikide direnean), etxean, bere erantzukizunak eta funtzioak bere gain hartu eta betetzen dituenaren konfiantza izan behar dugu.



Bata zein bestea (bi heldu bizikide direnean), etxeko lanetan ez ezik, gure alaba edota semeen hezkuntza eta hazkuntzan inplikatu behar dugu: medikuarenera eraman; irakasleak deitzen dituen bileretara joan; parkera, igerilekura eraman; ipuin bat irakurri; higiene, elikadura edo ikasteko ohiturak ezarri; arau eta mugak jarri....Batik bat, guzti horrek gure alaba edota semeen garapenari mesede egiten diolako.



Bestetik, gure alaba edota semeek gure hurbiltasuna sumatu behar dute: beraien lehentasunak eta nortasuna ezagutu; esan behar dutena entzun; sentitzen duten horri izena jarri; esperientziak, bizipenak konpartitu; babesa adierazi eta laguntza eskaini; gatazka-egoerak ebazten lagundu; etab.

Familian jolastu eta denbora pasatzea ere ezinbestekoa da. Familia guztiak parte hartzeko planak egitea.

Horrez gain, garrantzitsua da ere, positiboak izatea, akordioetara heltzea, familia osotzen dugunon indar-guneak eta abileziak aintzat hartzea eta adieraztea. Esfortzua baloratu eta modu bateratuan lan egitea (adibidez: familiako kide guztien artean -alaba edota semeek, amak edota aitak- etxeko lanak, zaintza, etab. partekatzea).

Gakoa, talde bezala jardutea da. Horretarako ezinbestekoa da komunikazioa egokia izatea. Komunikazioa hitz egitea da, baina baita entzutea ere. Helduok, komunikazioaren beharra dugu, gure alaba edota semeen hazkuntza eta hezkuntza gaiei dagozkien erabakiak hartzeko. Komunikazioaren beharra dugu, aldameneko pertsonak sentitu eta pentsatzen duena ezagutzeko eta ulertzeko, finean, beste pertsona batekin kontaktatu eta indarrak batzeko. Horrela, gure alaba edota semeek komunikazio egokiaren eredia izango dute. Mezuak naturaltasunez, entzun, tratatu eta eztabaidatuko dira, eta akordioetara heltzeko erremintak berenganatuko dituzte. Familia taldearen parte aktibo izango dira orduan.



Guzti honi buruz hitz egiteko, Bergarako udalerriko gurasoentzako hitzaldi-tailer bat antolatu da. Hitzaldi-tailerra, **Bergarako Irizar jauregian izango da, apirilaren 20ean arratsaldeko 18:00etan**. Oraingo honetan euskaraz izango da.

- ✓ **ETXADI. 0-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten familientzako doako Orientazio Zerbitzua Egin zure kontsulta Telefono bidez: 94405 1549 (Ostegunetan: 11:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 17:00etara) edo www.etxadi.org edo www.bergara.net webguneetan Bergarako Udaleko inprimakia betez.**